

POESIA PLAZARA,
Zure aurrekari penalak: Anariren poesia
Intxaurren Kultur Etxea
2015eko maiatzak 20

Anariren diskografia (ibilbidea: nitik gura, gutik nira, nitik zura):

- *Anari* (Esan Ozenki, 1997).
- *Habiak* (Esan Ozenki, 2000).
- *Zebra* (Metak, 2005).
- *Irla izan* (Bidehuts, 2009).
- *Bidea eta denbora* (Bidehuts, 2013).
- *Zure aurrekari penalak* (Bidehuts, 2015).

Anariren poetika

- **Errotzea eta deserrotzea** (*Habiak*): gai etengabea da erroak (des)eraikitzearena.
- **Desertua eta itsasoa**: ihesbide dira itsasoa eta desertua, iraganik eta komunitaterik gabeko guneak dira. Halako lurraldeetara ihes egiteko gogoaz hitz egiten da, baina, baita ezinez ere. Zentzu horretan, geografia erromantikoak desmitifikatu egiten ditu, idealismoz hustu. Itsasoa eta desertua ametsarako geografiak ere badirela iradokitzen da, baina, aldi berean, ametsekin ere hondoa jo daitekeela. Desertua askotan harearekin edo errautsekin ere irudika daiteke, hustasuna irudikatzeko, eta baita bizitzaren hondakinak irudikatzeko ere. Hondamendi pertsonalak, hondamendi existentzialak. Itsasoak irudikatzen ditu ametsak, aukerak, infinitua; baina, baita aukeratzeak dakarren itolarria ere. Nork bere burua itotzeaz dihardu, baina, baita besteak itotzeaz ere.
- **Animaliatasuna**: jendearen animaliatasuna gorpuzten da kantu askotan. Horretarako, jendeari animalia ezaugarriak eransten dizkio, edo animalia irudiak erabiltzen ditu jendeaz jarduteko (baita bere buruaren irudia osatzeko ere). Esate baterako, txoriak (hegoak, hegan egin), arrainak (itsasoan bizi, sakonera jo, igeri egin), zebra (azalaren bitasuna, erlatibotasuna)... Adibideak: *eskuak hego bihurtu*.
- **Izua**: beldurra da gai nagusi bat, zalantzak sorturikoa, minak sorturikoa, besteei min egiteak sorturikoa.
- **Azalaren eta hondoaren arteko harremana**: gainazalaren eta sakoneraren arteko talkaz hitz egiten du, hondoa jotzeaz, eta baita gainazaleko aparrean nabigatzeaz ere.
- **Bi muturren arteko harremanak**: dialektika sortzen du bi muturren arteko harremanak eta korapiloak sortuz. Batzuetan dialektika hori azala-hondoaren artekoa da, eta beste batzuetan, aldiz, ni-zu artekoa, bestetasun hori (zu) nitasuna eraikitzekeko prozesuan nolako harremana duen adieraziz, eta zu-ni horien joan-etorrian gorpuzturiko gatazkak irudikatuz.
- **Subjektu nomada eta errariak**: nortasun ibiltariak, noraezean dabilzanak, nortasuna auzitan jarriz, bidea birpentsatuz, nor zaharrak deseraikiz eta nor berriak eraikiz.
- **Iraganaren kateak hausteko beharra**: ahazteko premia, eta ezina. Iraganak eta bideak utzitako arrasto, zauri, ezinez dihardu sarri; baita hanka-sartzeaz ere. Adibidez, *neu piztutako suak*.
- **Hitz jokoak**: hitz-sormenaren bitartez hitzen esanahi anbiguoarekin jolas egiten du: *(h)egoak...*
- **Hitz kontraesankorrak**: kontraesanean diruditen kontzeptuak lotzen ditu, zentzu berriak sortzeko, gorpuztasunaren norabide berriak eraikitzeke. Adibidez: *aingura hegoduna, gorantz erori...*

Zure aurrekari penalak

- Diskurtso politiko eta kolektiboaren kontzeptuak harreman pertsonalak irudikatzeko erabili, kontzeptuen balio politikoa zabalduz.